



GURE SARE INDUSTRIALA MAPA BIRTUALEAN

Tolosaldea Garatzenek eskualdeko 560 enpresari buruzko kokapena eta datuak osatu ditu gida birtualean » 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2009-04-03**

VII. URTEA 1.670. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

DENAK BAT EUSKARAREKIN

TOLOSALDEA Eskualdea zeharkatu zuen atzo Korrikak; ehunka euskaltzalek hartu zuten parte lasterketan

IBILBIDEA AURRERA Etzi, igandea, amaituko da Gasteizen; eskualdetik festara joateko autobusak jarri dituzte 4-5



Baliarraingo Udalak eraman zuen eskualdeko lehen lekukoa; Alegian ikasle etorkinek eraman zuten lekukoa. Tolosako sarreran jendetzak esan zion Ongi etorri Korrikari. N. URBIZU/ E. EZEIZA

Eskualdeko enpresen gida birtuala sortu du Tolosaldea Garatzenek

Ekonomia » Tolosaldeko 54 industri-gune eta 560 enpresari buruzko kokapena eta datuak ematen ditu, besteak beste.

INIGO TERRADILLOS

Eskualdeak badu sare industrialaren mapa birtuala. Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak prestatu du, eta bere webgunearen bidez (www.tolosaldeagaratzen.net) industri sektoreko enpresen gida ikusteko aukera izango da hemendik aurrera.

Enpresen datu nagusien inguruko informazioa aurkitzeaz gain, era zehatzean bere kokapen geografikoa ezagutu ahalgo da. «Horixe da, hain zuzen ere, gida birtuala berezi egiten duena», azaldu dute Tolosaldea Garatzenetik, izan ere, «gaur egun martxan diren beste zenbait gidek ez dute aukera hori ematen».

Datu ugari eskura

Kontsulta tresna honen erabilpena doakoa da, eta modu errazean era desberdineko bilaketak egin ahalgo dira. Behin www.tolosaldeagaratzen.net webgunean sartuta, enpresak atalean sartu behar da, eta hor, enpresa gida-n. Horrela egingo dugu bat mapa birtualarekin. Batetik, mapan bertan azpieskualdea aukeratu dezakegu, eta horrela gune horretan dauden industri-guneak agertuko zaizkigu.



Atzo egin zuten zerbitzu berriaren aurkezpena Tolosaldea Garatzenen. MARTA SAN SEBASTIAN

Horietako bat aukeratzean, plano bat agertuko zaigu bertan dauden enpresa guztiak, eta hauen datuekin. Mapan bilatzeaz gain, bilatzailea ere badu gida birtualak. Bilatzailean enpresaren izena jar dezakegu, edo baita enpresaren jardueraren ere, esaterako, eta izen edota jardueraren lotutakoak agertuko zaizkigu zerrenda batean. Enpresen kokapena planoetan ikusteaz gain, UTM koordinadak ere ematen ditu gidak; «modu horretan, GPS bidez bertaraino heltzea errazten da, adibidez».

560 enpresen datuak

Eskualdeko 54 industri-gune desberdinetan kokatutako 560 enpre-

sa industrialen berri ematen du gida birtualak. Orotara, 750 enpresa daude Tolosaldean, beraz, oraindik %75a dago sarturik, baina, industri sektore osoaren %95a hartzen du, «industri-gune guztiak kontuan hartuta baitaude, eta sartzeko geratzen direnak gune horietatik at dauden enpresak dira». Hauek pixkanaka joango dira sartzeko, eta sartuta daudenak etengabe eguneratu ahalgo dira; «horretarako, enpresak beren datuen inguruko aldaketak proposatu ahalgo dituzte, zuzenean eta erremintan jarri ostean eguneratu dira datuok».

Enpresak elkar ezagutzeko

2007an egin zuten enpresen gida Tolosaldea Garatzenek, eta «horrik etorri zen horretatik abiatu eta era birtualean sortzeko ideia». Hala, Europako Gizarte Funtzaren diru laguntza jaso du proiektuak, %50ean, hain zuzen ere.

Enpresei buruzko datuak eta kokalekuak ezagutzeaz gain, enpresek dituzten jarduerak ezagutaraztea da gida honen helburuetako bat, hau da, «euren artean elkar ezagutzeko». Webgunean sartu eta mapa birtuala erabiltzen hastea da Tolosaldea Garatzenen gomendioa, «pixkanaka ohitura hartzen hasi, eta Tolosaldean dugun egoera ezagutzen joateko».

Aurrezteko xede duen GAP programan izena emateko azken eguna, etzi

ERREDAKZIOA

Etzi amaituko da GAP programan izena emateko epea. Nazio Batuen Erakundeak sustaturik Euskal Autonomia Erkidegoan ari da garatzen GAP programaren 4. edizioa. Garraioan, ura eta energiaren kontsumoan, erosketetan eta etxeko hondakinen kudeaketan aholku praktikoak zabaltzea eta partaideen ohiturak aldatzea du helburu programa honek.

Iaz Tolosan egin zen bezalaxe, aurten Tolosaldeko beste 20 herri-tara zabaldu da deialdia. Emandako aholkuei esker etxeko gastuetan aurrezteko irits daiteke eta gainera, parte hartzaileen artean, bizikletak edo landa-turismo etxetan azteburuak bezalako sariak zozketatuko dira programaren amaieran.

Parte hartzeko ez da ahalegin handirik egin behar, «ekintza xumeak baizik». www.udalsarea-21.net web orriari sartu eta izena eman daiteke.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbol: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



«Krisia sortu dutenek ordaindu behar dute»

EKONOMIA » Goierrri -Tolosaldeko LABeko delegatuen batzarra egin zuten herenegun Zaldibian. Bertan, egungo krisi egoerari buruz aritu ziren, eta baita maiatzaren 21ean burutuko den LAB, ELA, ESK, EHNE, STEE-EILAS eta HIRU sindikatuek deituriko egun osoko grebari buruz ere. Bestalde, batzarraren ostean LABeko delegatuek kontzentrazio bat burutu zuten,

FSMK (Federacion Sindical Mundial) mundu mailan mobilizazio eguna deitua baituzten egun horretarako. Nazioarte mailako ekimen honekin langile eta indar aurrerakoiek bat eginik aldarrikatu nahi izan zuten «krisia sortu dutenak ordaindu behar dutela, eta ez neoliberalismoaren biktima diren langileek eta herriek». HITZA



ALDARRIA EUSKARAREN ALDE



Ikaztegiatetik sartu zen Korrika gure eskualdean: Irudian, Eneritz Maiz alkatea lekukoa eramaten; Altxo aspizki Oleno berrindulariak eraman zuten Udalaren lekukoa; Akeginen ere udal ordezkariak hartu zuten lekukoa. Eneko Ariztaren Lagunak elkartekoaren musu eta guzti. HITZAK, berriz, Ollarrainen hartu zuten lekukoa Oargikoaren eskutik. r. r. r.

Tolosa » Ehunka euskaltzalek bainan erantzun zioten 'Ongi etorri' leloari eta Tolosaldean barrena Korrikak eginko bilbidea jarraitu zuten.

ERREDAKZIOA
Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Iruia, Villabona, Zizurkil, Aduna... «Zuek ere euskararen alde». Ozen entzan zibelen megaloniak Korrikaren ardura duen hitz hauek berri bakoitzari Ongi etorri esatearen batera. Arrazoirik ez zitzaizkien salatu beharrik gaitzarditu zuten Tolosaldeko ehunka euskaltzalek Korrikaren ikasgaia atzokian.
Atzerapen txiki batekin heldu zen euskararen aldeko AEKren ekimen nazionala eskualdera. Ikaztegieta egin zioten harriera eta Adunara sartu zuten. Tartean lekukoa eraman zuten eragile, elkarre, instituzio eta norbanakoekin batera jende askok jarraitu zuten lasterketa. Hunkigarria izan zen jendearen erantzuna sentitzea, beti ere, megaloniak nekatu

gabe animatzen zutenen amas be-roa lagun. Batzuk buruan zuten duela bi urte izan ziko onia, baina oraingan eguraldiak ere ez zuten festa zapuztu.
Hiru urde inguru behar izan zituen lasterketak eskualdea zeharkatzea. 10:45 aldera sartu zen eta 13:20 aldera Andoainera bidan jarraitu zuen. Beste bigun geratzen zaitziko oraindik Korrikari eta etzi, igandarekin, Gasteizera helduko da. Bertan euskararen festa handia izango da. Euskal Herriko toko desberdinetatik bilduko baitira euskaltzaleak, guztiak batera Ongi etorri esateko, euskaraz hitz nahi dugunon herrira Ongi etorri.

Gasteizera joateko aukera Tolosaldean
Eskualdetik bertara joan nahi dutenentzat ere aukera zabaldu dute. Hain zuzen ere, Tolosan autobusa



Tolosan bi buelta eraman zituen Korrikak; lekukoa esku azko ezagutu zituen, besteak beste, EHNE sindikatuak eta Erete elkartek eraman zuten. r. r. r.

09:30ean Kultur Etxetik abiatuko da eta Gasteiztik 19:30ean bustinako litzateke. Atari eta Zubiaurre tabernetan eta Tolosako Raku tabernetan izena eman daiteke. 10 euro ordainduz helduek eta 7 euro 20 urtetik beherakoek.

HITZA ere Korrikaren alde
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO Hitzak ere Euskal Herri euskaldun baten aldeko hitzalek horetan kilometro bat burutu zuten. Ollarrain auzoko hasieran Oargi mendiko elkartearen eskutik jaso zuten HITZAKen ordezkariak lekukoa eta haiek Raku tabernako ordezkari txikiari eman zioten. Euren atzetik ikastolako kasko etarriak eta herritar askok jarraitu zuten.
Aurtengo omenaldi euskaraz hitz nahi duten etorkin izan dira. Gurcan ere omenaldi hau egin nahi izan zuten eta, besteak beste, etorkin elkartekoek lekukoa eraman zutenen oner oteko hitza entzuan ahal izan ziren. Hasko etorkinek ere eraman zuten lekukoa hainbat puntutan.



Ibarren ere jende ugari egin zion ongetoria Korrikari; Irudian Bartola; Tolosan beste buelta bat eman eta Anoetara bideratu zen euskararen aldeko lasterketa; Irudian, Gazte Asanbladakoak. r. r. r.



Iburako bizilagunek gogoz erantzun zioten Korrikari; Udalaren lekukoa Marimi Ugaldere eraman zuten. Villabonan ez ziren gutxiago izan, Udalaren izenean Maialen Abaigar zinegotziak eraman zuten. r. r. r.



Zuzurkilen ere indartsu entzun zen euskararen aldeko aldarria; tabernariak lekukoa hartu zuten. r. r. r.
Adunara ere igo zen Korrika eta agur eman zion Tolosaldeari; Irudian, ezeher abertzalea. r. r. r.



Iaz ere egin zuten Kantu Jira Asteasun. NEREA URBIZU

Gaur Leitzan eta bihar Asteasun Kantu Jira

ERREDAKZIOA

Hilabeteroko ohiturari jarraituz, Leitzan Kantu Jira egingo dute gaur, 19:00etan, Aurrera Elkartearen bilduz. Oraingoan hileko lehenengo ostiralean elkartuko dira, bigarrenagoan izan beharrean, hori Ostiral Santua baita. Kantu Jira egitasmoaren baitan Aurreran elkartzen direnek herritar guztiei dei egin diete, abestea gustuko duenarentzat atek zabalik dituztela aipatuz.

Bestalde, Usarrabi kantu elkar-teak antolatuta, bihar Kantu Jira egingo dute Asteasun. 11:45ean el-

kartuko dira Aitzondo elkartean eta ondoren herrian zehar kantuz aritzeko asmoa dute. Kantu Jira hauek Asteasun 2007. urtean hasi ziren eta hau laugarren aldia izango da, lehenengo urte horretan bi antolatuta baitzituzten eta iaz beste bat egin zuten.

Inguruko herrietatik ere biltzen da jendea: Zizurkil, Aduna, Alkiza, Donostia, Intxaurren... Eskualdean egiten den lehenetarikoa Kantu Jira izan da. Antolatzaileek azaldu dutenez, edonori irekia dago eta kantuan aritzeko paper-letrak banatuko dituzte.

Lakunza, beste hiru punturen bila etxean

ERREDAKZIOA

Aurreko jardunaldian Lagun Onak taldeari 8-1 irabazi ondoren, Villabonako Transportes Lakunza taldeak beste hiru puntu lortzeko aukera du etxean. Bihar, 18:00etan, Olaederra kiroldegian jokatu du M. Petronor taldearen aurka. Zazpigarren sailkatua da M. Petronor eta aurkari zaila izango da billabonatarrentzat. Hauek etxean daramaten garaipen sortarekin jarraitu behar dute lehen postuari ondo eusteko.

Lagun Onak taldearen aurka garaipen sendoa lortu zuen Lakunzak. Zortzi goletatik hiru Sergio

Pascualek sartu zituen. Hala ere, ez zen erraza izan golak sartzen hastea, Lagun Onak taldekoak defentsan itxi egin baitziren hasieratik. Lakunzak estrajazko jokaldi batean lortu zuen bere lehen gola, atsedenaldirako 10 minutu falta zirela.

Atsedenaldiran, Lakunzako entrenatzaileak konzentrazioa eta pazientzia eskatu zuen baloia izaterakoan. Horrela, bigarren zatiko bosgarren minutuan, presio on baten ondoren billabonatarrek bigarren gola sartu zuten. Hortik aurrera beste lasaitasun batekin jokatu zuen taldeak.



'Lo que ellos ignoran de las mujeres' obraren une bat. HITZA

'Lo que ellos ignoran de las mujeres' obra Gurea aretoan

Villabona » Zizurkil eta Villabonako Antzerki Jardunaldien lehen antzezlana izango da, gaur, 22:00etan.

ERREDAKZIOA

Yolanda Garcia Serranok idatzi eta zuzentzen duen obra taularatuko du Erre Produzkoak gaur Villabonako Gurea aretoan. *Lo que ellos ignoran de ellas* (*Good Sex, Good Day*) antzezlana 22:00etan hasiko da eta sarrerak 8 euro balioko ditu, 6 euro gazte txartelarekin. Zizurkil eta Villabonako Antzerki Jardunaldien baitan egingo den lehe-

nengo antzezlana izango da. Besteak, hil honen bukaeran izango dira.

Yolanda Garcia Serranok hainbat gidoi idatzi ditu telebista eta zinemarako eta baita antzezlana ere. Gurean gaur ikusiko den obra New Yorken estreinatu zuen. Zerbait egokitzapen egin ondoren, Erre Produzkoak estreinatu zuen Barakaldo Antzokian, orain hilabete. Susana Soletok, Itziar Urretabizkaia eta Idoia Merodio dira antzezleak.

Emakume batek amodioa egiten duen lehenengo aldia eta horrek bere bi lagun onenetan duen eragina kontatzen du komedia horrek. Egun hori berezia delako,

» FITXA

- **Egilea.** Yolanda Garcia Serrano.
- **Zuzendaria.** Yolanda Garcia Serrano.
- **Antzezleak.** Susana Soletok, Idoia Merodio eta Itziar Urretabizkaia.
- **Diseinu eszenografikoa.** Gorka Minguez.
- **Ekospena eta banaketa.** Erre Produzkoak.

persona egokia topatu behar da harremanetan hasteko. «Hau guztia, pertsonen harreman sexualak analizatu dituen batek ikusia», azaltzen dute. «Emakumea intimitatean nola tratatu behar den benetan erakusten du».



Material ugari Malira bidaltzeko

VILLABONA » Malkar aisialdi taldeak Malira bidaltzeko material bilketa egin du aste honetan. «Oso gustura» azaldu dira taldekoak, «espero baino gehiago» bildu baitute. Batez ere eskola materiala eraman diete eta horretaz gain, arropa, higienearentzako produktuak, ordenadore pantailak, kanpina, bizikletak eta bete

hainbat gauza. Mali Elkartasuna elkarteari emango dizkiote jasotako material hori. Mali Elkartasunak edukiontzia bat bidaltzeko asmoa du Malira eta proiektu horretan laguntzea da Malkar taldearen asmoa. Lehenengo aldia izan da horrelako ekimen bat antolatu dutena eta «oso gustura» daude emaitzarekin. i.e.

BEZERO ARRETA-TELEMARKETIN LANGILEA

(Erreferentzia 2009-IR-BA)

Donostialdeko enpresa batek langilea behar du BEZERO ARRETA-TELEMARKETIN saillean aritzeko.

Eskaintzen da:

- Urtea amaitu arteko kontratua (luzagarria).
- Egun osoko lanaldia txandakako ordutegiarekin.

Eskatzen da:

- Administrazio edo komertzio arloko ikasketak
- Harremanetarako eraztasuna
- Telefono bidez komunikatzeko trebezia
- Ofimatika programen ezagutza
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea balioetsiko da

Bidaldu CV zehatza, apirilaren 9a baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.



14°
5°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 12°
HOTZENA 7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Irura.** Gipuzkoako batzar nagusien lana zein den jendeari ezagutarazteko autobus bat egongo da herriko enparantza nagusian. Adin guztientzat egokia, 19:30etan.
■ **Altzo.** *Bidaia intimoak* dokumentala (Jon Maia) udaletxean, 18:30ean. Korrika 16ri lotutakoa.

Musika

■ **Tolosa.** Laskorain abesbatzak kontzertua emango du Sakramentinoen elizan 20:00etan.
■ **Tolosa.** Bad Sound System eta Niko izango dira ostiralean ariko diren taldeak, 22:30etik aurrera. Irungo Bad Sound System taldeak Bad Sound System disko berria aurkeztuko du, eta Italiako Niko taldea Hip-Hop musika eta eritmoak aurkeztuko ditu.
■ **Tolosa.** Benito Lertundi eta bere taldearen kontzertua Leidor aretoan 20:30ean.

Antzerkia

■ **Villabona.** *Lo que ellos ignoran de ellas* antzezina Gurea antzokian 22:00etan.
■ **Berastegi.** Sinergia Sostenible taldeak eskainitako *Energia berri-tagarrien aplikazioa eta praktikotasuna* Gaztainondon 20:00etan.
■ **Ikaztegieta.** *Ongizate pertsonalerako gomendioa: autoestima* udal liburutegian 17:00etan.
» **GUARDIAKO FARMAZIAK**
■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Garazi Beloki Tobar (Alegia). Gaur 6 urte. Amalur, lehengusuak eta familiaren partetik.

Txikitatik hasi behar delako

Literatura » Hainbat ekitaldi gozatzeko aukera izan zuten atzokoan gaztetxoek, Haur Liburuaren Egunean.

ERREDAKZIOA

Atzo, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna izaki, hainbat ekitaldi izan ziren eskualdeko herri askotan. Urtero nazioarte mailan burutzen den egun honek haurrengan irakurzetasuna bultzatzea izaten du helburu, eta hain zuzen ere, antolatzen dituzten ekitaldiekin hori bultzatu nahi da gaztetxoengan.

Leku batzuetan aste osora ere luzatu dituzte ekitaldiok, izan ere, Tolosako Samaniego ikastetxean, esaterako, Literatur Astea ari dira ospatzen astelehenaz geroztik, eta gaur arte makina bat irakurketa saio egin dituzte gurasoek, ikasleek nahiz gonbidatu bereziek. Berzitasun bezala, irakurketa saio hauek euskaraz ezezik beste hainbat hizkuntzatan ere egiten dituzte.

Bidegoianen eta Ibarren herenegun ospatu zuten eguna. Bidegoianen, atzo Berrobin egun zuten bezala, ipuinak irakurri zituzten gazteek euren artean, eta originaltasuna saritu zuten. Ibarren, berriaz, Jon Arretxe idazlea egon zen ikasleengan literatura sustatzen. Inbertsitateko bere ikasleen garraioa oinarritutako pasadizoak kontatu zituen eta Ibarra Eneko Fernandez bere laguna ere aipatu zuten. «*Ostegunak* liburu arrakastatsua aurretik irakurria zuten gazteak ederki poltsikoratu zituen, bertan agertzen diren txuleta, lige eta ikasle kontuen berri emanaz, Uzturpe Ikastolako libu-



Ibarra Uzturpe ikastolan, Jon Arretxe idazlea izan zen ikasleekin. HITZA

rutegian eginiko saioan», azaldu dute Uzturpetik.

Tolosan, bestalde, goxoki batbanatu zuten liburutegian maileguan liburu bat hartzeagatik. Marrazkiekin osaturiko erakusketa ere zabaldu zuten, eta ipuin kontaketa saioa izan zen Miriam Mendozaren eskutik.

Leitza eta Areson, Ana Meabek izan zuen ipuin kontaketa egiteko ardura, eta horretaz gain, aurtengo Haur Liburuaren Nazioarteko Eguren kartela ere landu zuten.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pareta** du **Bruesa GBC** Alta Gestion Fuenlabrada

Donostiako Illunben
Apirilak 5, Igandea • 12:30ean

sarrerak eskuratzeko deitu:
943-34 03 30

harpidedun kodea eskura duzula
Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu.
Saridunen izenak Apirilaren 4ko egunkarian.



Bertsolar**hitza** info desafioa
FINALA



Alegia vs. Altzo

Non:
Ibarra-ko Gaztetxean
Noiz:
Apirilak 4, larunbata
14:00etan

Berto Bazkarirako sarrerak 20 euro

Non: Hiru bertso eskoletako kideren bati eskatuz edo eta 687 41 01 18 telefono zenbakian.

Antolatzaileak:
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarte.

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Gipuzkoako Bertsozale Elkarte